

L.K.M.
(LARRIA KUTSAKORRA ETA MENDEBALDEKOA)

OFF

Ongi etorriak eta mila esker esperimendu honetan lekuko izateko gonbitea onartzeagatik. Urte luzetako lanaren emaitza ikusteko unea iritsi da. Seguru gaude ez zaizuela damutuko gure proiektuan inbertitu izana, apaltasunez esan bait dezakegu, negozio farmazeutikoaren esparruan kontzeptu berri bat sortu dugula. (...) Behin betiko fase honetarako hiru gizabanako hautatu ditugu. Une honetan lehenengoa sartzen ari da bere gelan.

B gelan sartzen da.

OFF

Esperimentuaren baldintzak bereziak direnez, boluntarioen perfila ere berezia da. Gizabanako desintegratuak hautatu ditugu, orainik eta batez ere etorkizunik gabeko gizagaixoak, alegia.

Iluna.

OFF

Enpresaren segurtasuna eta sekretua lehenesten dugu, baina beti ere ahalik eta kalte gutxiena egiten.

Argia. C atean dago, sartzeko prest.

Hain zuzen ere, bigarren gizabanakoa bere gelan sartzen ari da une honetantxe.

C gelan sartzen da.

OFF

Esan bezala, boluntarioen hautaketa “oso” delikatua izan da... (...) Baina egoera fisikoaren ikuspuntutik behintzat, guztiz normalak direla baieztatu dezakegu.

C errenka dabilela ikusten dugu.

OFF

...Ia guztiz normalak.

Iluna.

Dena den, frogari ekin baino lehen azken uneko azterketa egingo zaie. (...)

Argia. A atean dago, sartzeko prest.

Oraintxe hirugarren gizabanakoa hirugarren gelan sartu da.

A gelan sartzen da.

(...) Ikusten duzue, zuen eserlekuetatik hiru gelak kontrolatzeko modua duzue. Experimentua hasi daiteke. Ikusi beraz, eta gozatu, etorkizunik oparoena eskura dugu, zientzia lagun!

A

(GELA 001. 10:00)

Dena ondo, oso ondo. Kontratu fijoak egin ahal dostazue, nire bizitza osoan lehena izango zen, baina nik esperientzia dekot honetan. Lagunek “el pastillas” esaten daustie, atera kontuak! Nirekin nahi beste bakuna probatu ahal dozue. Beste bi señorito hoiekin, aldiz, jai daukazue.

Tornoa irekiko da. A-k tentsioa neurtzeko aparailua hartu eta ipiniko du.

(Ikusleei begira) Hor zagosie, ezta? Zuen itzalak ikusten dodaz. Zenbat doktore! Eta ze dotore! Hau ohorea! Zientifiko piloa niri begira! (Emakume bati begi keinua) Hola, guapa. Itzela zuen lana. Zuek barik ez litzateke egongo ez tripirik, ez perikarik ez ezer. Zuek badakizue jendea zoriontsu egiten eta ez pailazo puta horiek. Bukatzean afaltzera konbidatuta zagoz. Tira, bizirik irteten banaz, ze esperimendu hau ez da parte onekoa, ziur, bestela ez zendukete dirutza hori ordainduko. Ostia, bostehun tronpo!

B

(GELA 002. 10:25)

Tentsioarekin aparailuaekin jarraitzen du.

500 euro! Diru horregatik ez naiz etxetik irten ere egiten. (...) Kurrikuluma irakurri duzue, ezta? Ekonomian lizentziatua. Master bat egiten ari naiz orain, “Enpresa Management”. (...) Jakina, zuek zientziakoak zarete, laborategiko arratoiak, eta ez dakizue manager bat zer den. Ea nola azaltzen dudana. Bi gehi bi zenbat den galdetzen badizuet, zuek lau esango duzue, heziketa zientifikoa. Manager batek, aldiz, atek eta lehioak itxi eta belarrira xuxurlatuko dizue: “Bi gehi bi? Bueno, hori negoziatu daiteke. Zenbat izatea nahi duzu zuk?” (...) Jakin nahiko duzue zer egiten duen ekonomista lizentziatu honek kobayarena egiten 500 euro ziztrinen truke. Hara ba, altruismoagatik. (Serio jarri baina segituan barrez hasiko da) Ez, orain benetan, farmazeutiken munduan interesa daukat, jakinmina... Etorkizuneko negozioa da. Manager bat behar baduzue, zuen eskeintza aztertzeko prest nago. Eta? Esperimendu hau? Ziur goseak hiltzen dagoen alproja mordo bat apuntatu dela, ez? Hori du ona krisialdiak, esku lan merkea topatzea erreza dela. Porzieto, zelan aukeratu gaituzue gu hirurok?, ze nik bi hoiekin ez daukat zer ikusirik. Bueno, kuestionarioan nik ere diruagatik natorrela

esan nuen bi aukera besterik ez zeudelako, A: diruagatik. B: Gizarte-Osasunak kezkatzen nauelako. Gizarte-osasuna! Norbaitek “B” erantzun badu, edo Iruñakoa da, edo hipokrita hutsa. C

(GELA 003. 10:57)

Tentsio aparailuarekin oraindik.

Nik “B” erantzun dut. Esperimentuan parte hartzen duten beste bi jaun horiek bezala, seguru. Oso jatorrak ziruditen. Zer izango zen munduaz giza-kontzientzia amini bat gabe? Bestearen tokian jartzea gustatzen zait niri. Sufritzen duenaren tokian. Foka monjeak, esaterako, gaixoak desagertzeko zorian daude. Ba nik foka monje bat apadrinatu dut. Ez da seme bat izatea bezalakoa, baina gutxienez arraina protestatu gabe jaten du, eta ama gutxik esan dezake hori. Ama edo aita gutxik, parkatu. Bestalde, ekintza zibikoak ditut gustoko: giza kateak, itzalketa kolektiboak, kazeroladak... Dena den nirea ez da altruismo hutsa. Esperimentu honetan parte hartzeko arrazoi pertsonal bat ere badaukat. Nire emaztea gaitz sendaezin batek jota hil zen, duela asko. Hil eta gutxira txertoa atera zuten. Beranduegi berarentzat. Horregatik etorri naiz, berriro halakorik gerta ez dadin. Hemen daukat bere argazkia. (Boltsikotik ateratzen du) Ikusteak min ematen dit eta ez dut aspaldi begiratzeko adorerik izan, baina gaintitu beharra daukat. (Begiratzen du) Ostia, a ze bibotea! (...) Ah, ez, hau foka da. (Gorde eta beste bat aterako du) Iruditu zait niri ba, argalegi zegoela. Hau da. (Hunkituta begiratzen dio) Ezin dut burutik kendu ospitalean hil zen eguna. Izan zen...

A

(GELA 001. 11:23)

Tentsio aparailuarekin oraindik.

...barrez lehertzekoa. Kolega batek kontatu eustan: Tipo bat hospitalera doa, bere emaztea ingresatu dabelako. Larri dago, oso grabe. Eta senarrak: “Hil egingo da, ezta, doktore?” Eta medikuak: “lasai, gizona, ez da hilko. Hori bai, ezin izango dau ohetik mugitu. Jatekoa ahora eman beharko dautsozu, eta arropaz aldatu, eta garbitu, eta komunera lagundu...zerorrek egin beharko dozu... hil artean...” Orduan gizona negarrez hasi eta medikuak: “Txantxetan nenbilen, gizona, hil egin da!”

B

(GELA 002. 12:40)

Tentsio aparailuarekin oraindik.

Hurbileko baten heriotza gauza tristea da. Oraindik ondo funtzionatzen duten organo piloa alferrik galtzea! Merkatu beltzean gibel batek 150.000 euro balio du, eta giltzurrunak 120.000. Kornea bera, 40.000tara iristen da! Nire aitagarreba, azkenetan dago gizajoa, eta halere 240.000 eurotan baloratuta daukat, baina emazteak organo guztiak dohainean eman behar ditu! Eta? Nik baino gehiago maite du bere aita? Ba ez, maitatzeko modu desberdina dugu.

C

(GELA 003. 13:23)

Tentsio aparailuarekin oraindik.

Bera gabe, jada ezer ez da berdin. (Tentsio aparailuagatik) Honek pitatu du jada. (Pantailatxoari begira) 17-10. Oso altu ez? Bueno, ez naiz harritzen, egoera hauek estresanteak dira.

Aparailua kendu eta tornoa sartuko du. Termometroa hartu eta besapean jarriko du.

Droga bat emango diguzue, ezta? Jakina, txertoa funtsean horixe baita, ez? Bueno, hartu behar baldin bada hartuko dut baina, ez dakit, ze... drogak....

A

(GELA 001. 14:45)

...puta madre daude. Drogen arazo bakarra, ez edukitzea da; eta drogak edukitzearen arazo bakarra, gainean dituzula maderoek harrapatzea. Algezirazen gertatu zitzaigun, hogeitamar bola hatxis pasa behar genituen ipurdian sartuta, eta lau ginen. Eta ea, listoak, ¿nola sartzen dira 30 bola lau ipurditan bolak indibisibleak badira? Zertarako balio dute matematika puta horiek?

B

(GELA 002. 15:38)

Manipulatzeko, jakina. Zeuek frogatu nahi duzuen, interesatzen zaizuen, frogatzeko. Logikoa da, logika enpresariala.

Termometroa kendu eta tenperatura konprobatzen du.

36,7. Gorputzaren tenperatura bera ere erraz manipulatu daiteke matematikak behar bezala erabiliz: sartu ezazu paziente baten burua labean eta oinak kongeladorean, eta batz besteko tenperatura normala izango da. Norbait Polonian jaio eta Frantzian bizi bada, batz beste alemana da. Indiako jaiotze tasa heriotze tasaren halako bi da, bi jaio eta bat hil, beraz bi pertsonetatik bat hilezkorra da Indian.

Termometroa tornoa utziko du.

C

(GELA 003. 16:54)

Eta Afrikan? Hango egoera tamalgarria da. Malariagatik bakarrik miloika ume hiltzen dira, eta malaria errez desager liteke, baina ai! Zenbat kostatzen zaien batzuei bestearen tokian jartzea! Malariaren kontrako txertoa denon artean ordainduko bagenu, bakoitzari zenbat tokatuko litzaiguke?

A

(GELA 001. 17:13)

...zazpi bola ipurdiko, baina bi sobran. Zer egin? Bertan erre genduzan, pentsioan, ri ra, bata bestearen atzean, ferrya hartu baino ordubete lehenago. Kontrola pasatu nuenean begiak alkatxofak bezala nituen. Madero bat hurbildu eta esan eustan: “Ze, arazoak drogekin, ezta?” Eta nik, “Ze ostia, denetarik dekot!” Nirea bai morala!

B

(GELA 002. 17:46)

Morala beti progresoaren atzetik dator, erremolkean. Zientziak ezin du itxaroten egon. “Gizon zintzoa”-ren egitura genetikoa aurkituko dugu, “gizon zintzoa” zer den definitzera iritsi baino lehen. Gizon zintzoa!

C

(GELA 003. 18:24)

Bestearekiko enpatia sentitzeko kapaz dena. Guztiekiko.

Tornotik kasko moduko bat aterako du, sensorez beterikoa.

Nik esatebaterako Palestinoekiko enpatia sentitzen dut, baina horrek ez luke meriturik izango aldi berean Juduekiko enpatia bera sentituko ez banu. Ziur nago “enpatiaren” etimologia “empatea” hitzetik datorrela. Palestinar eta israeldarren arteko gudan ni empatearen aldekoa naiz beti. X bat kinielan. Biak ados, poz berbera, berbera ere mina.

A

(GELA 001. 19:00)

Kaskoa buruan duela.

Itzela, mina itzela izan zen, ipurdian, zazpi bolak ateratzeko. Gero maderoek erre ebazan, (porroa egiteko keinua eginez) baina astiro astiro. Kosto usaina Tetuaneraino iristen zen.

B

(GELA 001. 19:34)

Kaskoa buruan duela.

Nik urrunetik usaintzen ditut negozioak. Txikitatik. Probatzen ari zareten bakuna hori negozio borobila izango da. Ziur nago. Zer da? (Usainduz) Alzheimerrentzako zerbait? (Usainduz) Kantzerra? (...)Sida? (Usainka) Parkinson? (...) Antxoaren gripea? Gripe A, B... Z. Ez duzue esan nahi? Ondo egina. Nik berdin jokatu nukeen. Zuen etika ulertzen dut. Esaten den bezela: el fin justifica a los médicos.

Aholku bat emango dizuet, debalde. Boltsan pepinazo on bat eman nahi baduzue, gaixotasun bat aukeratu behar duzue hiru baldintza hauek betetzen dituen: 1: LARRIA; hau da grabea eta bapatekoa, zuen produktuaren stock-time laburra eta kostu gutxikoa izateko; 2: KUTSAKORRA, zuen produktuaren merkatu potentziala ahalik eta zabalena izan dadin; eta 3: MENDEBALDEKOA, hemen bekarrik dagoelako medizina garestiak erosteko ahalmena. Baina, adi egon, hori guzti hori ondo komunikatuta, ondo publizitatuta. Erreza da, komunikabideak kontrolatzen dituzue, ezta? Beldurra sortu behar da. (Buru seinalatuz) Negozioa hemen dago. Beldurra ona da. Izua hobea. Histeria kolektiboa sekulako pepinazoa!

C **(GELA 003. 20:38)**

Txistu hots fin bat sortuko du kaskoak, C izutuz.

A ze sustoa! (Kaskoa ikutuz) Ba dago, ezta?

Kaskoa kenduko du.

...eskerrak esperimientua psikologikoa ez den. Zerebroa oso gauza konplikatu da. Guk zerebroa ulertzerako, zerebroa, sinpleagoa izan beharko zen baina gure zerebroa sinpleagoa izango balitz, gu ere oso sinpleak izango ginatke, eta orduan ez genuke zerebroa ulertuko, ez dakit ulertzen didazuen.

Kaskoa gordetzen du.

Geldi geratzen da. Bihotz taupadak entzuten dira.

B
Geldi geratzen da. Bihotz taupadak entzuten dira.

A
(GELA 001. 20:50)
Geldi geratzen da. Bihotz taupadak entzuten dira.

B
(GELA 002. 20:51)

Geldi geratzen da. Bihotz taupadak entzuten dira.

C

(GELA 003. 20:52)

Geldi geratzen da. Bihotz taupadak entzuten dira.

ILUNA

HIRUGARREN AGERRALDIA: PILULA HARTZEA

ARGIA.

Tornoan ur baso bat eta pilula agertuko dira.

A

(GELA 001. 21:01)

Pilula eskuetan.

Zer? Heldu da momentua? Joder! Eta honetarako hainbeste misterio? Beraz, pilula bat da Bostehun tronpo horiengatik!. Eh! 500. Señorito horiei bezala. Ezta bat ere gutxiago. Kontuz ibili gero, enteratuko naiz eta. Topa dagigun... eta pakea!

Pilula jaten du..

B

(GELA 002. 21:38)

Zientzia eta negozioaren alde! Funtzionatzen badu, hartu ni kontutan boltsan inbertitzeko.

Pilula jaten du.

C

(GELA 003. 21:39)

Zuregatik, Marta.

Pilula jaten du.

ERDI ILUNEAN

Beno, badago. (Pixka bat itxaron eta gero) Ez dut ezer nabari. Akaso azkure pixka bat... Baina hori hipokondriako xamarra naizelako. Txertoak errekaizionatzean azkurea eragiten du, eta tenperatura dezima batzu igotzen da, baina ordu batzu pasatu behar dira. Oraindik ez... Kontua da azkurea sentitzen dudala zerean... (Xilborrari begira) Jainko maitea, zerbait atera zait xilborrean! (...) Ah, ez, pelusa bat da. Pelotilla bat. Etzatera noa. Nik atsenden hartzea nahiko duzue zera honek efektua egiteko. Bai, lokuluxka bat egingo dut.

Ohean eseri da.

Xilborrak ze politak, ezta? Batez ere inguruan emakume bat daukatenean. Martari ez nion inoiz... Beno, ez du ajola...

Gero arte, Marta.

A

(GELA 001. 21:40)

Ohean eserita, mantaren azpian. Halako batean maindireen artetik esku bat agertuko da, irekia, zurruna, sumindua. Eskua iluntasunean nabaria da, halako fosforeszentzia bat daukalako. Terrerezko tremolo batek eskena azpimarratzen du, egoerari tentsioa emanez. Eskua leporantz hurbiltzen da astiro, asmo txarrez, Aren gorputzaren gainontzeko atal guztiak lasai lo dauden bitartean, hurbil dagoen tragedia sumatzeke. Eskuak berezko bizitza duela dirudi. Lepora hurbiltzean publikoaren tentsiozko xurrunurru bat entzungo da. Eskuak keinu batez ixiltasuna eskatzen du. Eskua berriz ere leporantz doa. Irri maltzur bat entzuten da, eta berriro ere ixiltasuna eskatzen du. Gero hatzen koxkorrak klaskatu egingo ditu. Azkenean, katu mogimendu batez, Aren lepora oldartzen da. Gorputzak erreakzionatu egiten du.

Baina zer...? Lagundu!! Akatu egin behar naute!!

A bere eskuaren kontra borrokan hasiko da, azkenean mendean hartu eta zapaldu egingo du.

Ostia!! Baina zer...?

Eskuari begira, orain apal eta menderatua.

Neurea da ta! Zer gertatu da? Zer...? Zer eman dostazue?

Eskua berriz ere suspertzen da. Zabaldtu egiten da, tentsioz aidean. A-k beldurrez begiratzen dio.

Eh, lasai... lasai...

Eskua aurpegira hurbilduko da.

Egon, egon, hitz egin daigun! Hitz egin daigun! Zer egin dotsut nik? Bizitza osoa daramagu elkarregaz eta zu beti izan zara nire eskuin eskua niretzat. Eta elkarregaz pasatu doguzan une goxoak? Ala ez dozu jada gogoratzen, pirata?

Eskua albo batera begira, lotsatuta bezela.

Hara ze lotsatia dan bera! Ai, ze potxoloa... Norenak dira bost hatzamartxo horiek? (Publikoari) Txintxo txintxo da, ba, ez dakit ze ostia gertatu jakon gaur.

Eskua lepoa laztantzen hasten da.

Ai, kendu, txotxoloa, orain ez, mundu guztia begira dago ta.

Belarria laztantzen di.

Belarria ez, bero jartzen... Ahhh...

Eskua belarritik gorputzean behera doa, bularra eta tripatik pasatuz, eremu intimoetara iritsi arte. A exziturik dago, baina gainditu egiten du.

Ez, orain ez. (Tinko) Ezetz, ostia! Buruko mina dekot.

Eskua urruntzen da, mindurik.

Ba..., ez zaitez horrela jarri. Nik maite zaitut, baina badira momentuak eta momentuak. (Ezkerra erakutsiz) Begira zure ahizpari, ze formal dagoen.

Eskuineko eskuak kolpea ematen dio ezkerrekoari.

Ez hasi tontakeriekin, eh? Eskatu barkamena zure ahizpari!

Eskua beste aldera doa.

Eskatu barkamena segituan ala ez dotsudaz atzazkalak moztuko!

Esskua lepora oldartzen da abisurik gabe.

¡Ahhh...! ¡Ahhh! Lagundu!! Lagun...!

Lurrera doa eta defenditzen da azkeneko hatsa bota arte. Aren gorpua lurrean datza, denbora tarte batez.

Gero altzatu egiten da, barrezka.

Banuen gogoia hau egiteko! Erne ibili, gero, eh, hau benetako gaixotasuna da. "Esku arrotza"-ren sindromea. Tebistan ikusi neban, kartzelan. Sustoa eman dautsuet, eh? Hainbeste urte bakuna puta hori prestatzen eta dena popatik hartzera. A ze porrota! (Serioago) Hori bai, inork ez dau zirkinik ere egin niri laguntzeko. (Emakumeari) Ez ta zeuk ere, morena. Hemen nork bereari, ezta? (*mehatxuz*) Ba, badakizue zer ?

Eskuak "popatik hartzera" bidaltzen ditu.

Ja, ja... Eh, ni ez naz izan eh! Baina ez zaio arrazoirik falta. Tira ba, piltrara noa. Afaria prest dagoenean abisau.

(GELA 002. 23:56)

ILUNA

**LAUGARREN AGERRALDIA. GAIXORIK DAUDELA
SUMATU GABE**

LUZ

B

(GELA 002. 08:00)

B esnatu eta ohean ukondo baten gainean altzatu da. Gaixotasun arraro bat daukan seinale nabarmenak ditu (arratoi buztan bat?) baina bera ez da konturatuko. Aharrausi egingo du.

(Irribarrez) Uf ! Seko gelditu naiz. Harrigarria ! Nik ez dut siestarik egiten. Beharra nuen, antza. Bai, aste gogorra izan da. Lan handia. Ba, ni ederto nago. Ez dut ezer arrarorik sentitzen. (...) A ze lasaitua, ez da ezer arrarorik gertatu! Ikara pixka bat banuen, ez pentsa. Tira, ba dakit, zer

demontre gerta zitekeen ba!, mendebaldean gaude, hemen dena kontrolpean egiten da. Froga “arriskutsuetarako” Hego Amerika edo Afrika dago. Eta zer nahi duzue, horrek segurtasuna ematen dizu. Gu materia gara, baina haiek materia “primoa”. (...) Ea, ez dut inoren kontura barrerik egin nahi... hoiena gogorra da. Zinez sentitzen dut. Baina ez naiz errudun sentitzen. Ondo merezita daukagu daukaguna, jode. Pekatua ote da zorionari eustea?

C

(GELA 003. 09:24)

Jo! Ba ni ederto nago! Ez dut ezer arrarorik sentitzen. Akaso dosi txikiegia izan da. Zerbait espero nuen, Martarengatik, berak sufritu zuena sufritzeagatik. Hau da nire lema: “jarri zaitetz besteaeren tokian”. Lehen ere esan dizuet. Urtetan landu dudana dohaia da. Manganeses de la Polvorosa-ra joan ginenekoa bezala. Herri hartako festetan ahuntz bat botatzen dute elizako kanpandorretik behera. Gu performance bat egitera joan ginen, herritarren kontzientzia suspertzeko: kanpandorrearen azpian koltxoneta bat ipini, boluntario bat aukeratu genuen, ni neu, eta kanpandorretik behera bota ninduten, atzean kartel bat neramala: “Jarri zaitetz bere tokian”. Baina Manganeseskoek ez dituzte, antza, metafora bisualak ulertzen, zirkinik ere ez zutelako egin. Bi ondorio atera nituen: bata, oker jokatzeko dugula besteen jarrerak azalkeiaz juzgatzean; bigarren ondorioa: norbait botatzen baduzue kanpandorre batetik koltxoneta batera, mesedez, ondo kalkulatu koltxoneta non ipini.

Ohera doa errenka.

Bueno, hobe dut ixildu

A

(GELA 001. 10:36)

Ixildu! (Sufritzen)

¡Ooohhhh! Ez! Nahikoa, mesedez!! Nahikoa!!

Lotan ari da hitz egiten.

Ixildu hadi behingoagatik... “Baaaarcelooooonaaaaa!!!” Ez, Montse, gehiago ez... Gehiago ez... “Baaaarcelooooonaaaaa!!!” ez,

Esnatuko da. Hasieran kostako zaio tokia ezagutzea. Berari ere pilularen efektuak nabaritzen zaizkio.

¿¿Montserrat Caballerekin txortan?? A ze amets erotiko puta mierdakua. Ze pilula ostia emon dostazue ba??

B

(GELA 002. 12:43)

;;Aaaahhhh!!!

Ohetik altzatuko da, botaguraz. Ohearen atzera doa, izkutuan egitera.

Zutitzean, aurreko sintomaz gain beste bat daukala ikusten dugu, baina bera ez da ohartzen.

(Irribarre fortzatua) Barkatu. Ez dakit zer gertatu zaidan. Ni ez naiz botaka hastekoa. Eta hemen, denon aurrean. Behin bakarrik gertatu zait hau. Nire lehen lan-entrebistan izan zen. Urduritasuna, nonbait. Gaztea nintzen. Bizitzan izan dudan egoerarik lotsagarriena izan...

Tripetan halako mogimendu bat sentitzen du. Eskuak tripara daramatza. Puzker zaratatsu bat irteten zaio, geldiezina. Ixilune apur baten ondoren.

Bigarren egoerarik lotsagarria izan zen.

Hotzikara bat.

Parkatu. Siestan hoztu egin naiz, antza. Freskoago dago, ezta? Aire egokitua jarri al duzue? Ez zen behar. Hemen ikusi nahiko nuke nik andrea. Berak kontrara, kalefakzioa beti topera ipinita! Bota dirua lehiotik!... Ez diot esan nora nentorren. Tira, badakit ezin nuela esan, zuen baldintza bat zela, baina esaterik banuen ere, ez niokeen esango. Aztoratu egingo zen. Bildurra die farmazeutikei. Badakizue, interneten irakurtzen dituen beldurrezko istorio hoiak. Sinestu egiten ditu. Baina ze sinesbera den, ze inuzente, ze tuntuena, ze, ze, ze ...

C

(GELA 003 14: 56)

Zezenak! Hori ere gai konplexua, ezta? Ze alde batetik, argi dago tortura dela. Baina, toreroaren tokian jartzen bazara, zenenaren aurrean dagoenean, honek adarrak aurrean zituela, nobleziaz oldartzen, urrundik atakatzuz, eta bira emanda gero atzekaldeko anketan apoiatuz, enkanpanaturik... Ele! Ele!... (Pase bat egten du) ...estokea sartzeko kriston gogoia ematen dizu, me cago en el toro que mató a Manolete...!! Toreroaren tokian jartzen bazara zezenketa kultura dela ulertzen duzu.

Ekilibrioa galtzear dago.

Zorabiatu naiz.

Dardarka.

Hotza, ezta? Hotz handia!! Eta hala ere, izerditan nago.

Eskuak aurpegira eremanetz. Zerbait sentitzen du.

Nola? Zer da hau?

BOSKARREN AGERRALDIA. EGIAREN JABE

A

(GELA 001. 15:04)

Ze ostia dekot hemen?

B

(GELA 002. 16:21)

Ispilu bat! Ispilu bat behar dut!

Ez du ezer aurkitzen. Pijamaren goiko aldea kenduko du.

C

(GELA 003. 17:34)

Bular eta bizkarraren larruak itxura nazkagarria dauka, ileak eta soilguneak bakandurik, kutsaturiko animale bat bailitz.

Jo, Mangeses de la Polvorosa-ko ahuntz bat ematen dut!

(...)

A

(GELA001. 18:24)

Eztulka.

Jode... 500 euro honengatik? Azkenean aitak arrazoi zeban: "¡Zenbat lan, lanik ez egiteko!"

B

(GELA 002. 19:54)

Zer egin didazue?

Ixilunea. Berria asimilatzeko denbora behar du.

Etz duzue kurrikuluma irakurri? Honetarako behar zenuten ekonomista bat? Milaka pertsona daude diru gutxiagotatik hau egiteko prest!

C

(GELA 003. 20:23)

Nik debalde egingo nuke, jakina. Honek biziak salbatzeko balio izango du, beraz, lasai nago. Badakit funtsean zuek bakarrik bilatzen duzuela...

A

(GELA 001. 20:09)

...gu akatzea. Kolega bat neban kartzelan, denak gaseatuko gintuztela esaten ebana. Zer? Zaborraz libratzeko garaia heldu da? Ba, nirekin jai dozue, putakumeak !

(Neskari) Badakizu, morena? Hemen hiltzen banaz, zuk bakarrik botako nazu faltan. (Besteei begira) Baina ez da gertatuko. Ez dotsuet beldurrik. Nik dena aguantatzen dot.

B

(GELA 002. 20:45)

Ezin dut gehiago! Kabroiak!! Engainatu egin nauzue... (Amorruz) Hara, neuk ere engainatu zaituztet!! Langabezia nago, inozoak!! Hiru urte dira kaleratu nindutela!! Neure etxean ere ez dakite! (Amorrua tristura bihurtuko da) Emazteak uste du BBVan jarraitzen dudala. Egun osoa ematen dut kalean. Semeak... Bi ditut, Jontxu eta Mikeltxu. Nik IVA eta IRPF deitzen diet hazi eta hazi besterik ez dutelako egiten. Ez ditut apenas ikusten, (ironiaz) “aitatxok hainbeste lan egiten du eta”!. Zenbat gezur! Hainbeste gezur esan dut ze azkenean neuk ere sinistu egin ditut. Lehen esan dizuet 500 euro niretzat gutxiegi zela. Zinez esan dizuet. Ez nekiena zera zen, apur bat estutuz gero 50engatik edo 10engatik ere egiteko kapaz izango nintzatekela. Beldur naiz, bai. Gelditu hau, mesedez!

C

(GELA 003. 21:14)

Segi, segi aurrera, mesedez. Gauza haundia egiten ari gara, ziur naiz. Hau une historikoa da! Marta nitaz harro egongo litzateke... Beno, edo ez, izan ere ez dakit Marta nolakoa zen.

Ez nuen behar beste ezagutzerik izan. Marta nire hauzokidea zen. Egunero ikusten genuen elkar aszensorean. Ni boskarrenean eta bera hirugarrenean bizi zen. Aszensorea goizeko 8 eta 43an hartzen nuen egunero, juxtu bera etxetik lanera irten baino minutu erdi lehenago. Eguraldiaz hitz egiten genuen. Beno, nion. Baina beti alderdi desberdinei buruz. Batean esaten nion: “Goizean laino trinkoak iturburuetan eta arratsaldeko hego haizeak giro lanbrotzua ekarriko du” Bestean “Antizikloia hurbildu ahala tenperatuek gora egingo dute eta maximoak 20 graduren bueltan ibiliko dira.” Hola egon ginen bost urtez, astelehenetik ostiralera, hamabost segundu egunero, isobara, antizikloi eta begiradaxoen artean. Gogoan daukat aszensorea hirugarren pisutik gelditu gabe pasatu zen lehenengo eguna. Hurrengoan ere ez zen gelditu... Ezta hurrengoan ere... Hiletan egon nintzen. Bere senarrak lore koroa bat utzi zuen. Bizitza osoan erosi zizkion lore bakarrak, seguru! Nota bat idatzi nuen sinaduren liburuan. “Gaur ez da eguzkia atara”. Ez zen berriro irten niretzat. Alargunaren tokian nola hasi nintzen jartzen ez dut gogoratzen. Marta nire emaztea izan zela norbaiti esan nion lehenengo aldian ni neu ere harritu nintzen. Baina ez nuen

gezurrik esaten. Marta nire emaztea izan zen inork ez zuelako nik beste maite izan. Eta kitto. Batzuentzat gure benetako bizitza, bizi ez dugun huraxe da. Egia egiaren parte bat baino ez da.

Tornoa zabaldu eta xiringa bat agertuko da. Hartuko du.

Eta... orain?

SEIGARREN AGERRALDIA. SENDAKUNTZA

A

(GELA 001. 22:21)

Joder! Orain errematea, ez? Ikusi dozue nirekin ezin dozuela pilulatxoekaz, eta azkenean xiringazo batez akatu nahi nauzue. Ba izorratu. Nik paso.

Tira! Berdin deuto! Xiringazo bati ezetz esaten deutoaldian aldian aldian izango zen. Apur bat probatuko dot. Apur bat besterik ez.

Orratza sartzeko prest dago. Ohean eseriko da.

B

(GELA 002. 22:35)

Orratza sartzera doa.

Banoa ulertzen apurka-apurka. Gaitz berria sortu duzue eta, aldi berean, gaitz hori sendatuko duen medizina, ezta? Negozio borobila! Pepinazoa!. Asmatu dut, ezta? Esan dizuet ba, ikasketak ditudala. Emaztea berriz ikusterik banu gustora esango nioke berak zuela arrozoi, gauza hauek gerta daitezkeela, eta aukera eduki ezker...

Ohean etzanda.

C

(GELA 003. 22:26)

Etzanda, xiringa besoan.

...besteen alde zerbait egiteko, ba egin egiten da eta kitto. Eskerrik asko. Oso atsegina izan zara. Eta zure lana, zoragarria. Inoiz zure tokian jartzea gustatuko litzaidake. Denak izan zarete oso atseginak nirekin. Eskerrik asko...

ILUNA

AMAIERA

ARGIA

Hasierako musika berbera. A altzatuko da. Itxura normala berreskuratuko du. Jazten hasiko da.

A

(GELA 001. 08:30)

Aguantatu dut, bai ala ez, kabroiak? Ez nauzue ezagutzen. Inork ez nau ezagutzen. Gure aitak esaten eustan apurtutako erloju batek baino gutxiago balio nuela. Zaharrak ez zekiena zera zen, apurtutako erloju batek, egunean bi aldiz ordua puta madre ematen dauela. Eta nik oraingoan bete betean asmatuko dot, egin dostazuena ez delako batere normala. Azkeneraino iristeko prest nago.

B

(Beldurra izkutatu nahian) Zuentzat lan egiteko prest nago. Ez didazue askorik ordaindu behar. Ez didazue... ordaindu behar. Tratua ixten badugu, nire diskrekzio osoarekin kontatu ahal duzue. Quid pro quo... Inork ez du jakingo hemen gertatu dena. Inork ez. Baina tira, hitz egingo dugu kanpoan... Eta, beno, bai, lanik gabe nago, baina esperientzia haundia daukat.

C

(Deskonzertaturik) Esperientzia... nola esan... esperientzia aberasgarria izan da, dudarik gabe. Interesgarria. Une honetan pixka bat nahastuta nago. Alde batetik pozik... Bestalde... (...) Beno, hainbat galdera sortzen zaizkit, badakizue... (irribarre zintzoaz) zalantzak... Kalera irten eta komiteetako jendearekin komentatuko dut. Jende gutxi dago komiteetan, baina nik Komite askotan hartzen dut parte. Zuen helbide elektronikoa ematen badidazue, hemendik egun batzuetara nire eritzia emango dizuet...

A

Sekulako palua emango dautsuet. Kontaktoak dodaz, abokatuak ezagutzen dodaz. Ez naz ni epaiketa gutxitan egon, gero! Enpasteak eta guzti aterako dautsuedaz. Aizu, txata, afaltzera konbidatzearena aurrera doa. Limusina batekin joango naz zure bila. Nik zure tokian, bata kutre hori kendu eta ostia bizian joango nintzateke jantzi dotore bat erostera. Kremaierekin. Botoiak gorroto dodaz

Ireki atea!

Ah! Hau nirea da. (eraztuna hartzen du)

Ireki atea, ostia!!.

Lurretik gasa irteten hasiko da.

Kabroiak!

Jazten bukatu eta belarritakoak ipiniko ditu.

B

(GELA 002. 08:31)

Txanoa ipiniko du. Keaz jabetzen da.

Itxaron, itxaron une bat. Hitz egin dezagun. Begira... nire organoak 720.000 eurotan baloratuta ditut. Alferrik ez galtzea eskatzen dizuet, besterik ez. Zuek nahi duzuen portzentaiarekin geratu, ez nago negoziatzeko kondiziotan. Baina dirutza horren ehuneko apal bat balitz ere... nire familiak premia handia dauka. Baina, jakina, ez dut uste faboreak egitea izango denik zuen politika enpresariala. Gaizki pentsatzen duenak asmatu egiten du, ez? Kabroiak!

C

(GELA 003. 08:35)

Betaurrekoak ipiniz. Keaz jabetu da baina ez ikusiarena bezala egiten du.

Gaizki pentsatzen duten horietakoa banintz, ondorio hauxe aterako nuke: zuek jendea gaixotzeko prest zaudetela, gure kontura aberasteko. Baina zer irabazten dugu gaizki pentsatuta?

Gasa gero eta trinkoagoa da.

Beste hipotesi bat ere bururatzen zait: zuek susmatzen duzue oraindik existitzen ez duen gaixotasun horrek, egunen batean existituko duela. Eta etorkizunean gerta daitekeen osasun katastrofeari aurka egiteko, zuek aurreratu zarete, laborategian gaixotasuna sortuz.

Eztula.

...eta bere kontrako antidotoa prestatuz.

Eztula.

Miloika bizitza salbatuko dituen botika miragarria. Garaiz prestatua, nire Marta gaixoari gertatu zitzaiona beste inori ez gertatzeko.

Eztula.

Sinistu nahi dut zuek gure gizartearen ongizatearen alde ari zaretela. Sinistu nahi dut. Baina orain nekatuegi nago. Logura naiz. Inporta ez bazaizue, ohean etzango naiz pixka batean.

Ohean etzan egingo da.

Segituan utziko dizuet gela libre, ez kezkatu. Lo kuluxka bat, besterik ez. (...) Atrebentzia handirik ez bada, normalean erabiltzen ez dudan mintzamoldeaz baliatuko naiz: (gozotasuna galdu gabe) nire eritzi apalean kabroi putakume galantak zarete. (...) Orain lo egitera noa. (Argazkia aterako du) Agur, Marta... Gaur lainotuta agertu zaigu eguna. Ez dut uste eguzkia ikusiko dugunik. Ez, ez dut uste. Agur... Ask... maite... zai... tut...

ILUNA.

AMAITU DA

TELLERIA ETA OREGI